JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

5491

AGINDUA, 2008ko irailaren 10ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena; honen bidez jakinarazten da Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuko II. kapituluan adierazten diren laguntzak jasotzeko eskaerak 2008. urtean aurkezteko epea.

Kultura Ekintzailea eta Enpresak Sortzeko aukera babesten duen abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuko II. kapituluaren xedea Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bidez, langabezian dagoen biztanleriaren eta biztanleria inaktiboaren -bereziki ikasleen- artean kultura ekintzailea zabaltzeko proiektuak garatzeko emango dituen laguntzak arautzea da.

Uztailaren 26ko 191/2005 Dekretuak abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua aldatu zuen, bertan aurreikusitako laguntzen kudeaketa hobetzeko eta helburuak lortzeko xedearekin. Beste hainbat aldaketaren artean, unibertsitateak eta toki-administrazioa sartu ziren II. kapituluan aurreikusitako laguntzen entitate onuradunen artean, eta hainbat lege-egokitzapen egin ziren, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legeko (4/2005 Legea, otsailaren 18koa) Azken Xedapenetako Seigarrenean sartutako aldaketari dagokiona kasu.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.5 artikuluak ezartzen duenez (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zen dekretu horren bidez), Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean dirulaguntzak emateko arauak gaurkotu nahiz berrikusiko dira, edo, behar izanez gero, arau berriak ezarriko dira, eta, orobat, zehaztugabeko indarraldia duten dirulaguntzak iragarriko dira.

Abenduaren 23ko 328/2003 Dekretua mugagabeko indarraldia duen araua da, eta Agindu honen bidez Dekretu horretako 6.2 artikuluan aipatzen den publikotasun printzipioa betetzen da; izan ere, artikulu horretan xedatzen denez, Dekretuko II. kapituluan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea urtero argitaratuko da, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren Agindu baten bidez, eta laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoa jaso beharko da agindu horretan.

Abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuko 8.2 artikulua aplikatuz, II. kapituluko laguntzetarako esleitutako

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

5491

ORDEN de 10 de septiembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se establece para el año 2008 el plazo de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en el Capítulo II del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas.

El Capítulo II del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas, tiene por objeto la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, otorgará para el desarrollo de proyectos de extensión de la cultura emprendedora entre la población en situación de desempleo, entre la población inactiva y, muy particularmente, entre la población escolar.

El Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, fue modificado mediante el Decreto 191/2005, de 26 julio, para introducir algunas mejoras en la gestión de las ayudas y la consecución de los objetivos previstos en el mismo. Entre otras modificaciones se introdujeron como entidades beneficiarias de las ayudas previstas en el Capítulo II a los centros universitarios y a la Administración Local, así como adecuaciones legales como la relativa a la modificación introducida por la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres.

El Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, establece en su artículo 49.5 que una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o, en su caso, establecer las normas reguladoras de la concesión de las subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquellas que fueron en su momento reguladas con vigencia indefinida.

El Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, se trata de una norma de vigencia indefinida o de carácter intemporal y mediante la presente Orden se pretende dar cumplimiento al principio de publicidad referido en el artículo 6.2 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, que establece que mediante Orden del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social se publicará anualmente el plazo de presentación de solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en el Capítulo II del citado Decreto, y, además, se hará constar el importe de los créditos asignados para su financiación.

En aplicación del artículo 8.2 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, el importe global consignado para

zenbateko osoa aldatu ahal izango da, eskatutako laguntza guztien zenbateko osoa kontuan hartuz eta Sailaren beste laguntza-programen egikaritzapenaren ondorioz agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera; hori guztia laguntzak ebatzi baino lehen.

Hori guztia dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak abenduaren 28ko 15/2007 Legearen bidez onartuta, eta abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuko 6.2 artikuluan xedatzen den gaikuntza baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kultura ekintzailea eta enpresak sortzeko aukera babesten duen 328/2003 Dekretuko II. kapituluan adierazten diren laguntzak 2008. urtean jasotzeko epea hilabete batekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Bigarrena.– Abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuko II. kapituluaren helburua lortzeko, guztira 220.000 euroko gehienezko kopurua bideratuko da 2008. urtean, honela banatuta: 154.000 euro 2008ko aurrekontu arruntekoak dira, eta 66.000 euro 2009ko ekitaldiko konpromiso-kreditu batekoak. Diru-laguntza hori, behar izanez gero, eguneratu egin daiteke, indarreko legediaren arabera aurrekontuetan aldaketak egitea onartzen bada.

Hirugarrena.– Dirulaguntzak lortzeko eta emateko baldintzak abenduaren 23ko 328/2003 Dekretuan aurreikusitakoak izango dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar diezaiokete interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, Agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 10a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

las ayudas del Capítulo II podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas de este Departamento y con carácter previo a la resolución de las mismas.

Por todo ello, una vez aprobados los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, mediante la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, y en ejercicio de la habilitación prevista en el artículo 6.2 del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre,

RESUELVO:

Primero.– Para el año 2008, el plazo de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en el Capítulo II del Decreto 328/2003, de Apoyo a la Cultura Emprendedora y a la Creación de Empresas será de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segundo.– A los efectos del cumplimiento del objeto del Capítulo II del Decreto 328/2003, de 23 de diciembre, se destinará para el año 2008 un total máximo de 220.000 euros, de los que 154.000 euros corresponderán al presupuesto ordinario 2008 y 66.000 euros al crédito de compromiso para el 2009, cuantía que podrá verse, en su caso, actualizada en el supuesto de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

Tercero.– Las condiciones para el acceso y la concesión de las mencionadas ayudas serán las previstas en el Decreto 328/2003, de 23 de diciembre.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de septiembre de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.